

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Alkateordeak izendatzea

Alkateak 149 zenbakiko dekretua eman du 2019ko ekainaren 28an, zeinaren bidez alkateordeak izendatu baititu.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.3 artikuluan xedatzen duenez, alkateak askatasunez izendatuko ditu alkateordeak, Tokiko Gobernu Batzarra osatzen duten kideen artean eta, halakorik egon ezean, zinegotzien artean.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21. artikuluan adierazitako eskumenak erabiliz,

AGINTZEN DU

Lehenengoa. Honako kide hauek alkateorde izendatzea:

Lehen alkateorde: Eneritz Alonso Montaño.

Bigarren alkateorde: Pablo Alcalde Jiménez.

Alkateordeen eginkizuna da alkatea guztiz ordezkatzea, izendapen hurrenkeraren arabera, hura ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo bere eginkizunak betetzen uzten ez dion eragozpenen bat duenean, baita alkatearen eginkizunak betetzea ere haren lekua hutsik dagoenean.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Erabaki hau interesdunei eta osoko bilkurari jakinaraztea egiten den hurrengo bilkuran.

Okondo, 2019ko ekainaren 28a

Alkatea

JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO